# PRAKTIKA ON ETA BERRIKUNTZARAKO LANKIDETZA

Nuestro instituto, junto con otros tres centros (CIP.ETI de Tudela, St John´s Central College de Cork, y L.P J.P Champo de Mauléon - Pyrénées-Atlantiques), va a participar en la creación de una herramienta para la evaluación de las FCTs dentro del marco de la mejora continua de las acciones educativas, para realizar una gestión coherente del progreso.

Esta herramienta, por un lado, procurará observar, medir y analizar las finalidades, los esfuerzos para alcanzar objetivos definidos inicialmente y los logros de las acciones; además, sintetizará la evolución personal con miras certificativas, valorando tanto las aptitudes, capacidades y competencias adquiridas, como la actitud y el comportamiento del alumno en prácticas.

Todos los alumnos que realizan prácticas en el contexto europeo están sometidos a una evaluación exhaustiva para medir su evolución y certificación. Ello genera burocracia y una jerga lingüística, que provoca el desconcierto y la perplejidad de muchos tutores de empresas de acogida, ya que, aunque tienen una visión muy clara del valor del estudiante, de la movilidad y de sus progresos, les cuesta reflejar detalladamente el contenido pedagógico del período de prácticas.

Ante esta problemática, todos los participantes en este proyecto han coincidido en la necesidad de simplificar y racionalizar el sistema tradicional de evaluación, creando un programa informático que sustituirá a las fichas evaluativas, que muchas veces son redundantes. Por lo tanto, inventariar y catalogar recursos, compartir contenidos formativos y riquezas individuales, armonizar y dar credibilidad a las buenas prácticas permitirá confluir en el logro de un objetivo genuino y común.

El programa constituirá un dispositivo completo, eficiente y de fácil manejo y acceso para todos los agentes. Así mismo, supondrá un gran ahorro de tiempo para los instructores, sin descuidar la calidad de la evaluación. En efecto, el proyecto plantea la elaboración conjunta de un dispositivo informático trilingüe (español, inglés, francés) atractivo y moderno, amoldable a cualquier tipo de formación profesional, y adaptable a cualquier otro idioma mediante la previa traducción.

Para responder a las necesidades de tutores, gerentes o empresarios, se ha planteado la elaboración de un listado con unos veinte ítems claves y, por una parte, al tutor le bastará pinchar con un ratón el grado de satisfacción concedido al estudiante para cada ítem; por otra,, el programa implementará automáticamente un comentario común predeterminado para cada aptitud, capacidad, competencia y actitud/comportamiento y propondrá una puntuación final que podrá modificar el tutor. No obstante, éste no verá reducida su capacidad de iniciativa en la redacción de sus propios comentarios, puesto que el dispositivo dispondrá de una ventanilla para efectuar las correspondientes explicaciones.

Gracias a una base de datos previamente elaborada por cada centro, el dispositivo numérico podrá editar el convenio de prácticas de cada participante, los certificados lingüísticos, el certificado de presencia y de formación, o cualquier documento que se estime útil o imprescindible agregar a lo largo de reuniones, visitas o intercambios, telefónicos o numéricos (Dropbox, google drive,..). Además, al finalizar la evaluación, el balance de cada participante podrá ser guardado, impreso e incorporarse al Europass Movilidad y a su currículum vitae. Por lo tanto, esta innovación numérica no se fijará únicamente en la evaluación de un perfil profesional del estudiante, sino que le posicionará en su potencialidad de futuro profesional y atestará un balance objetivo en un instante definido, dentro del marco de una formación profesional abierta a un contexto europeo.

Gure institutuak, Tuterako CIP ETI, Cork-eko St John's eta Mauleko L.P. J.P Champo ikastetxeekin batera, parte hartuko du Lantokiko Prestakuntza ebaluatzeko tresna baten sorreran, hezkuntza-jardueretarako etengabeko hobekuntzaren barruan, aurrerapenaren kudeaketa koherentea gauzatze aldera.

Tresna honek, batetik, helburuak, aurrez definituriko xedeak erdiesteko esfortzuak, eta ekintzen lorpenak behatu, neurtu eta aztertzeko aukera emango du; bestetik, zertifikazioak eskuratzeko asmoz, norbere bilakaera laburbilduko du bai praktiketako ikasleak lorturiko trebetasunak, gaitasunak, eta konpetentziak, bai haren jarrera eta portaera baloratuz

Europar testuinguruaren barruan praktikak egiten dituzten ikasle guztiei ebaluaketa sakona egiten zaie euren bilakaera eta zertifikazioa neurtzearren, Horrek burokrazia eta hizkuntza-mordoiloa sortzen ditu, harrera-enpresetako tutore askoren harridura eta zalantzak eragiten dituztenak, asko kostatzen baitzaie eduki pedagogikoa zehatz-mehatz islatzea, nahiz eta ikuspegi argia izan ikaslearen balioaz, mugikortasunaz eta aurrerapenaz.

Hori dela eta, proiektuko parte-hartzaile guztiak bat datoz ohiko ebaluaketa-sistema erraztu eta arrazionalizatu beharrean, askotan errepikatzen diren ebaluazio-fitxak ordezkatzeko programa informatiko bat sortuz. Beraz, baliabideen inbentarioa eta katalogoa egin, prestakuntza-edukiak eta norbere aberastasunak partekatu, praktika onak bateratu eta haiei sinesgarritasuna emateak benetako helburu komun baten lorpenean bat egitea ahalbidetuko du.

Programa, tresna oso bat izango da, efizientea eta eragile guztientzako erabilera eta sarbide errazekoa. Halaber, instruktoreentzako denbora-aurrezpena ekarriko du, ebaluazioaren kalitatea gutxitu gabe. Proiektuak, hain zuzen, tresna informatiko hirueledun bateratua (gaztelania, ingelesa, frantsesa) gauzatzea planteatzen du, edozein motatako lanbide heziketara moldagarri, eta, aurretiko itzulpen bidez, edozein beste hizkuntzari egokigarri.

Tutore, gerente edota enpresaburuen beharrizanei erantzuteko, hogei item garrantzitsu biltzen dituen zerrenda bat egitea pentsatu da, eta, batetik, tutoreak, item bakoitzeko ikasleari emandako asetasun-maila saguarekin klikatu baino ez du egingo; bestetik, programak, trebetasun, gaitasun, konpetentzia eta jarrera/portaera bakoitzeko, automatikoki abiaraziko du aurretiko iruzkin komun bat, eta azken puntuazioa proposatuko du, tutoreak aldatzea izango duena. Halere, honen ekimen-gaitasuna ez da murriztuko bere iruzkin propioak idazteko, aplikazioak leihatila bat izango baitu azalpenak emateko.

Ikastetxe bakoitzak aurrez eginiko datu-base bati esker, zenbakizko tresnak editatu ahalko du parte-hartzaile bakoitzaren praktika-hitzarmena, hizkuntza-ziurtagiriak, prestakuntza eta agerpen-ziurtagiria, edota bileretan, bisitetan, edo trukeetan, telefono bidez zein zenbakiz (Dropbox, google drive,..) sortutako edozein agiri , eranstea baliagarri edo ezinbestekotzat jotzen dena. Gainera, ebaluazioa amaiturik, parte-hartzaile bakoitzaren balantzea gorde, inprimatu eta Europass Mugikortasunari eta haren curriculumari gehitu ahalko zaie. Beraz, zenbakizko berrikuntza honek ez dio lanbide profilaren ebaluaketari bakarrik erreparatuko, baizik eta lanbide-etorkizuneko potentzialtasunean kokatuko du ikaslea, une jakin batean, balantze objektibo bat egiaztatuko duelarik europar testuinguruari irekitako lanbide prestakuntzaren barruan.